BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3141

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 10ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, Fundación Hazi Fundazioa Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpena kontrolatu eta egiaztatzeko erakunde izendatzekoa.

Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko uztailaren 3ko126/2012 Dekretuaren (EHAA, 148, 2012ko uztailaren 31a) xedea Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpena arautzea da, babestutako ekoizpenen definizioari, bete beharreko higiene- eta osasun-baldintzei, identifikatuko duen kalitate-ikurrari eta bai ikurren bai Artisau Ekoizleen Erregistroa kudeatzeko antolaketa-neurrien kudeaketa eta kontrolerako sistemari dagokienez.

Dekretu horren 21. artikuluan xedatu bezala, Euskadiko Artisau Ekoizleen Erregistroan inskribatuta dauden elikagaigintzako artisau-ekoizleak kontrolatu eta egiaztatzeko erakundea (edo erakundeak, hala egokituz gero) Elikagaigintzako Kalitate Zuzendaritzako buruak (egun, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza) hautatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroan daudenen artean.

Halaber, 21. artikuluan xedatu legetxe, izendatutako kontrol eta egiaztapen erakundeak betekizun batzuk bete behar ditu.

Maiatzaren 10eko 93/2011 Dekretuaren bidez araututako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroa ikusita, eta kontuan harturik Hazi fundazioak ebazpen hau sinatzen den egunean erregistratutako eta egiaztatutako nekazaritza eta elikagai ekoizle kopururik handiena, beharrezko eskarmentua, langile prestatuak eta xedatutako funtzioak betetzeko behar besteko administrazio azpiegitura dituela.

Azaldutako guztia dela-eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

1.– Fundación Hazi Fundazioa Kontrol eta egiaztapen erakundea Euskadiko Artisau Ekoizleen Erregistroan inskribatuta dauden elikagaigintzako artisau-ekoizleak kontrolatu eta egiaztatzeko erakunde izendatzea.

2.– Halaber, ondo iritzitako beste kontrol eta egiaztapen erakunde batzuk izenda daitezke.

3.– Izendapena amaiera jakinik gabekoa da, beraz, indarreko araudia bete behar da eta berrikusi eta aldatu daiteke edo hala badagokio, baliogabetu, funtsezko inguruabarrak aldatzen badira.

4.– Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio bidea amaitzen, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 10a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.